

Aitaxo

Testu hau Barbier-en« Ozkixeko patarrean » ipuinaren hastapena da.

Ez nihaurek hain luze bizitzea igurikatzen dutalakotz, baina, nere bi aitaxoak hil izan dira, batto, -amaren aita- *ehun eta sei* urthetan, han Ameriketan, bertzea -aitaren aita- *ehun eta hirur* urthetan, orai aspaldi Donibane Garazin. Azken aitaxo horren ixtorio bat nahi nauzueke erran.

Napoléon handiaren soldado luzaz eta luzaz ibilia zen, Madriletik eta Moscoura, Prusian gaindi. Noizpeit, etxerat itzuli zen beraz, frantses hitz bakar zonbeit ikasirik, etxetik urruntzean bezen aberats, eta sekulako bizia emaiten ohi duten errezeloak berekin.

Kadera egilea eta torneatzailea baitzen, bere lanari lothu zen berehala, eta hogoi'ta bortz haren kadera eder higatu edo ...ez higatu dira Garazi aldean.

Jainkoak hartako zerbait dohain emanik, eta bere soldadogo luzean zernahi ikasirik ere, dudarik ez dena, *hezur xuxentzen* bazakien, geroztikako edo-zein *Daunatuk* baino hobeki, beharbada. Merkeenerat ari, orduan orai bezala, sekulako jendea heldu zitzaion beraz, eta orduko Buhameek -oilategietarik jauzi egitean zango bat hautsirik, edo joka-aldietan beso bat makurturik- bazakiten hek ere haren ganat ethortzen. Gure etxean gero, auzo bat edo biga, behartuaren atxikitzerat ekarrarazirik, garrasia bat edo bertze goiti beheiti, begiak hesteko artean, beren zango besoak xuxentzen ziozkaten Aitaxok gure buhamettoeri.

Eta, nola, nahi edo ez, buhame horietarik zailenak berak, zuri zuria maiz aldi-txartzen baitziren, aitaxok bazuen bethi heientzat edo arno edo kafe xorta bat ona. Hots gure Antxixarburutarrak¹ bazoazin, xuxenduak, sendatuak eta errepixkolatuak, milesker bat doi doia erranik, bertze oilategi batean, edo bardin lehenagoko hartan berean berriz zango-besoak hautsi arte.

Irabazi gutti zuen beraz Aitaxok buru hortarik; baina berehala ikusiko ere dugun bezala, ongi heldu behar zen oraino, egun batez edo hobeki gau batez, buhameentzat ona hola izanik.

Hainbertze denboraz soldado egonik, eta bere jitez ere, urhea bezen garbiko gizona zen gure Aitaxo, eta zuzena gain-gainetik. Asko jende hari zagozin osoki, eta beren behar orduetan, hobeagorik ez zuten nahi Doniandar jaun handienek.

Jean Barbier
Ozkixeko patarrean
« Supaster sokoan » 1926

¹ Antxixarburu: Donazarre eta Duzunaritze artean den leheneko buhameen auzoa.

BACCALAURÉAT GÉNÉRAL ET TECHNOLOGIQUE		
EPREUVE : BASQUE (NAVARRO LABOURDIN)		
10BSLSME1	Ce sujet comporte 2 pages.	Page 1/2

I. ULERMENA

Les candidats des trois séries répondront à toutes les questions

1. Erraten ahal dea Aitaxoa aberastu zela Napoleoni esker (justifika)?(1)
2. Zer ofizio zuen Aitaxok?(1)
3. Zer lan egiten zuen bere ofiziotik kanpo?(2)
4. Nola ulertzen duzu « daunatu » hitza?(1)
5. Nor ditu lan horretan klient hoberenak eta zergatik?(3)
6. Deskriba nola plantatzen diren minaren konpontzeko. (1)
7. Zer erran erien esker onaz?(1)

II. ADIERAZPENA

1. Nola erakutsiak dira hemen Antxixarburuko buhameak? (justifika testuan oinarrituz) (L: 2; S: 5; STG 5)
2. Aitaxoren kasua gogoan hartuz kanpoan ibili behar da ikasteko? (L: 3)
3. Ibil zintezke sasi-mediku baten etxen? Zer diozu orokorki medikuntza paraleloez? (L: 5; S: 5; STG: 5)

BACCALAURÉAT GÉNÉRAL ET TECHNOLOGIQUE

EPREUVE : BASQUE (NAVARRO LABOURDIN)

10BSLSME1

Ce sujet comporte 2 pages.

Page 2/2